

Sarrera

Ez da erraza curriculum bat egitea eta estaturik ez daukan herri baten curriculuma egitea are zailagoa dirudi. Ez da lan erraza ere Euskal Curriculumak eta Historiak eduki behar duten harremanaren inguruan hausnartzea. Ez da lan erraza Euskal Curriculumuma gauza asko delako, baina zerbait bada, batez ere Historia da. Ez dago esaterik Natur Zientziak eta Osasun Zientziak, edo Musika eta Dantza Curriculumuma ez direnik, noski badirela, baina zalantzarik gabe ez daukate Euskal Herriarentzat (behintzat euskal herritarrentzat) Historiak daukan garrantzia bera.

Curriculum hau garatuko den egoerari ere erreparatu behar diogu egoki kokatzeko ere. Eraikuntza curriculum bat bada hau, baina baita edo batez ere erresistentzia curriculum bat da. Eta Historia borroka ideologikorako esparrua bilakatu den honetan, zaila zaigu Historiarik ez daukagula entzuten mendeak igaro ostean gure ondorengoei zein Historia irakatsi behar diegun erabakitzea.

Askoren mina tontoen poza esan ohi da eta egia da, baina kontsolatzeko arrazoi bat behintzat badugu: zaila da Frantzia eta Espainiak bezain gaizki kontatzea gure Historia, edo gure curriculuma egitea. Gure borondate eta konpromezuaren indarrez izango dute gure ondorengoek herri (honen) jakintza. Zalantzarik gabe.

Euskal Herriko historia, ikasgaia edo beste ikasgai baten atala

2005. urtean *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumuma*. Oinarrizko Txostena-osaketa prozesuaren baitan Francisco Gomez eta Jon Andoni Atutxak egindako “Gizarte Zientziak” deituriko txostenak oinarrizko galdera bat plazaratu zuen. Historia ikasgai autonomoa da edo ikasgai orokorrago baten (Gizarte Zientziak) atal bat?

Bada, historialariok edo historia-zaleok nolabaiteko eksklusibitate joera eduki dezakegun arren, ez dirudi *a priori* arazorik dagoenik Historia Gizarte Zientziak ikasgaiaren baitako atal bat izateko. Arazo nagusia, edo behintzat gu arduratu behar gaituen arazoa, zera da: zer-nolako lekua eduki behar du Historiak ikasgai horren baitan? Zaila da leku hori zehaztea, zaila delako kopuru jakin bat proposatzea. Zortzirena? Laurdena? Herena? Erdia? Gainera, Gizarte Zientzien baitan Historiaren lekua finkatzeko zehaztu beharko litzateke zein den Historiak eta gainontzeko Gizarte Zientziek eduki beharko luketen harremana.

Ez dirudi lan erraza, Gizarte Zientzien inguruko adostasunik lortu ezean. Ambiziosoegia izan daiteke lan honetan gaiean gehiegi sakontzea, baina hipotesi moduan onar dezagun Gomezek eta Atutxak proposatutako zientzia edo gaietako batzuk behintzat badirela eta ezinbestekoa dela 16 urteko gazte batentzat hauen berri edukitzea. Ezinbestekoak edo gutxienekoak dirudite Geografia, Demografia, Antropologia eta Ekonomia. Eztabaidagarriagoa dirudi globalizazioa edo ekologia gizarte zientziatzat hartzea¹. Egokia lirudike Historia garaikidearen irakaspenean sakontzen goazen heinean

¹ Halaber, ez dirudi argi dagoenik 16 urteko gazte batek Zuzenbideaz edo erakundeetaz ezer jakin behar ote duen

bi fenomeno hauek irakastea, kokatzen diren prozesuen baitan era egoki batean kontestualizatuz.

Honek beste ondorio batetara garamatza: Historiak Gizarte Zientziak ikasgaiaren baitan eduki behar duen lekuaz gain, beste Gizarte Zientziekin izan behar duen harremana zehaztu behar da. Harreman hauetan buru belarri sartzea gehiegizkoa izan daiteke, baina ondorio pare bat atera daitezke hanka gehiegi sartu gabe. Argi dago irakasgaia mailakatua izan behar dela eta, beraz, ikaslea nor den ulertzeko nahitaezkoa dela non dagoen azaltzea, adibidez. Hitz bitan, Geografia Historia baina lehenago irakatsi beharko dela eta Historiaren irakaspena mailakatua eta progresiboa izan beharko dela. Ezin Historia berdin irakatsi (ez soilik metodologikoki) 8 urteko haur bati edo 16 urteko gazte bati.

Zertarako irakatsi Historia? Zer ikasi Historiaren bidez?

Mundu osoan hezkuntzaz arduratzen diren pertsona zein erakundeek argi daukate Historia irakatsi egin behar dela. Ez da munduan egongo Historia irakasten ez duen herrialderik edo hezkuntza sistemarik. Arazoa sortzen da ordea Historia zertarako irakatsi behar den galdetzen dugunean; hemen, Espainian, Kuban, Txinan edo Filipinetan. Erantzunak anitzak dira eta pertsona eta aroen arabera aldatu izan dira. Ba ote dago Erantzunik? Erantzunik egon edo ez ezinbestekoa dirudi berriro galdetzea, Euskal Herriarentzat curriculum bat osatzen ari garen honetan.

Galdetzeak merezi badu ere, ez dago argi erantzunean trebatzen saiatzea hainbeste merezi ote duen edo ez. Munduko edozein curriculum hartu eta handiosoegiak izango dira segurasko Historiaren irakaspenari lotzen zaizkion helburuak, behintzat emaitzekin alderatuz gero (har ditzagun gure egungo curriculumak eta egungo gazteak, bestela). *Norberaren sustraiak ezagutzuz justizian eta demokrazian oinarritutako etorkizuna eraikitzea, iragana ikertuz ikasleari bakea, justizia eta demokraziaren baloreak irakastea...* Honelakoak irakurriz badirudi Historia nolabaiteko harri filosofala dela; Historia behar bezala ikasiz gero aparteko pertsonak bilakatuko omen gara. Bada, hemen gauden askok Historia Fakultateetan ikasitakoak gara eta, esperientzia horren argitan, agerikoa dirudi ez dela hori gertatuko, ezta?

Ez al dago erantzunik ba? Seguru baietz, baina nahiko genukeena baino askoz apalagoa izan beharko da ezinbestean. Konformatzeko modukoa litzateke Historiaren irakaspenaren bidez lortuko bagenu ikasleari nondik datorren irakastea eta gaur egungo errealitatea ulertzeko kakoak ematea.

Bistan dago helburu hauek ezin apalagoak direla, baina errealistagoak izateaz gain, positiboagoak ere badira. Esan bezala, betidanik asmo handiosoak egotzi izan zaizkio Historiari. Irakasgai hutsa baino, jarrera edo balioak transmititzeko tresna izan dela esan da eta esaten da². Ezin uka horretarako erabili nahi izan dela behin eta berriz, baina eztaba daezina da ere asmo hori mugara eramanez nahi izan den herrialde edo aroetan, ez dela helburu hori lortu. Hamaika adibide daude hori frogatzeko, galdetu besterik ez dago nola den posible Francoren diktadura ostean gehiengo abertzale soziologiko bat existitzea. Edo, adibide barregarriago bat jartzeko: Hungarian, 40 urtez teoriarik komunismoan oinarritutako hezkuntza sistema bat egon ostean, Budapesteko Karl Marx plazan zeuden lagunei Karl Marx nor zen galdetu zieten. Hauexek erantzunak:

² Espainiako Real Academia de la Historia-k 2000. urtean Hego Euskal Herriko hainbat ikastetxeen kontra egindako salaketa honen adibide argia da.

*Era un filósofo soviético, amigo de Engels. Bueno, ¿qué más puedo decir? Murió ya mayor. (Otra voz): Pues claro, un político. Y también fue el traductor de las obras de, bueno, ¿de quién era? De Lenin, Lenin, de las obras de Lenin; bueno, pues él las tradujo al húngaro.*³

Adibide negargarri bezain barregarri honen parean esan behar dugu euskal curriculumaren parte den Historiari dagokiola irakastea zein izan zen Sabino Arana, ez Sabino Aranaren jarraitzaileak sortzea. Arestian iradoki bezala, arazoa ez da soilik Historiari ez dagokiola Sabino Aranaren jarraitzaileak sortzea, baizik eta hori egiteko gaitasunik ote daukan edo ez eztabaidagarria dela ere.

Iraganak berez ez du baliorik transmititzen, baina daukagun arazorik haundiena da Historia ez dela iraganaren kontakizun hutsa, baizik eta ikuspegi eta konbentzioen bidez eraikitako kontakizuna. Iragan horren puskak batuz eraikitzen du historiagileak Historia, baina ze puskak hautatu behar ditu, zeintzuk baztertu, nola jarri behar ditu harremanetan... Zalantzarik gabe Historia ez da iraganaren kronika hutsa, baizik eta historiagileek beren ideologia, fobia, maitasun eta abarren bidez eraikitzen duten kontakizun hobe edo okerragoa. Hau onartuz gero, soluzio bakarra geratzen zaigula dirudi: Historia ahalik eta erarik zientifikoenean irakastea⁴. Irakatsiko dugun kontakizuna ahalik eta zabalena izan behar du, ahalik eta objektiboena baina, aldiberean, argi finkatu behar ditu zein konbentzio eta ikuspegi arabera eraiki nahi dugun Historia.

Ikuspegi hori izango da euskal curriculum berezia bilakatuko duena, izan ere, historian aurrenekoz erabiliko dugun ikuspegi nazionala izango da, euskalduna. Horixe izango da “transmitituko” dugun ikuspegi bakarra. Orain hori zertan datzan zehaztu behar dugu ordea.

Euskal Herriko Historia.

Euskal Herriko Historiaren irakasgaia eraikitzeko orduan egokia dirudi, Jurgi Kintanak proposatu bezala hitzei erreparatzea eta, hala bada hiztegiak dioskunaren arabera euskal hitza “Hitz-elkarte baten lehen osagarri gisa, euskarari, euskaldunei edo Euskal Herriari dagokionaren adierazlea⁵” da. Euskal Herria⁶, euskara eta euskaldunak dira beraz, kontutan hartu beharrekoak. Ikuspegi nahiko malgu eta osatua topa dezakegu definizio honen baitan, izan ere, kontakizunean zehar estuak gera daitezkeen esparru geografikoak gaintzen ditu. Definizio hau haintzat hartuta Euskal Herri geografikoaren mugak gaintu dituzten euskaldunen historia landu daiteke arazorik gabe, edo egungo lurraldetasunaren mugekin bat etorri ez diren beste muga batzuk, adibidez.

Arestian esan bezala, ikuspegi hau guztiz arbitrarioa da, gutxienez, Nafarroako Historia, Dublingo Historia edo eta Espainiako Historia kontzeptuak bezain arbitrarioa. Hala bada, beren konbentzioa eraiki duen inork ezin digu euskaldunei aurpegiratu gure konbentzio propioa eraiki izana, izan ere, zientifikoki berea bezain zuzena izan daiteke, gutxienez, eta moralki zalantzarik gabe maila berean dago. Hainbat buruzagi militarrek

³ Garton Ash in Hobsbawm, Eric, *Historia del siglo XX*, Crítica, Barcelona, 2004, 393. orr.

⁴ Historiak hezkuntza integral bat lortzeko daukan gaitasuna baztertu gabe. Hau da, Historia irakasten goazen heinean baloreen inguruko galderak planteatu daitezke eta planteatu behar dira ikasgela batean. Baina ikasleek erantzun behar dituzte galdera horiek eta ez Historiak.

⁵ Askoren artean, Hiztegi Entziklopedikoa, Elkar, Donostia, 2003.

⁶ Euskal Herria izenaren inguruan J. Kintanak zein G. Ezkurdiak *Euskal Herria izenari buruzko Euskaltzaindiaren adierazpena* erabili izan dute, era zuzen batean. www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/ProNor0139.pdf

Erdi Aroan egindako kanpaina militarri Birkonkista deitzen dion ezein Erret Akademiarik ezin digu aurpegiratu Euskal Herriko lurraldetasunaz aritzea.

Hauxe da lotsarik gabe aldarrikatu behar duguna, konplexurik gabe. Zientifikoki eta moralki zuzena da eta ez dago zertan gehiago justifikatu beharrik. Gurutze Ezkurdiak egoki dioen bezala, “curriculuma kultura-tresna da, beste edozein asmakizun sozial bezala”⁷. Tira, bada garaia gure kultur-tresnak eraikitzeke eta, hauen baitan gure ikuspegi edo konbentzioak finkatzen joateko ingurura lotsaz begiratu gabe. Zazpi herrialdez osaturiko gure herria aldarrikatzen dugu eta iruditzen zaigu hauek badaukatela historia amankomun bat. Amerikara emigratutako euskaldunen historia, Errioxako toponimiaren inguruko azterketak, euskal arrantzaleen inguruko azterketak.... lekua daukate aipaturiko kontakizunean eta lekua egin behar diegu zalantzarik gabe aipatu ditugun tresnen bidez: konbentzioaren inguruko irizpide argien bidez eta Historia diziplinari dagozkion metodo zientifikoen bidez.

Honi buruz ari garelarik, asko eztabaidatu daiteke Historiari dagozkion metodo zientifikoei edo tresna kritikoei buruz eta azken berrogeitamar urteetan metodo eta tresna hauek eduki duten bilakabideari erreparatuta, pentsatzekoa da hurrengo hamarkadetan ere bilakaerarik jasango dutela. Hala ere, ezin dugu gure eskoletan irakatsiko den Historia parametro zaharren bidez irakatsi. Gutxienez azken hamarkadetan finkatu diren joerak barneratu beharko ditu gure ikasgaiak eta zalantzarik gabe positiboa litzateke gure eskoletan etorkizun perspektibarekin jokatzeko. Gizarte taldeen historia, emakumeena, tokian-tokiko historia, gizarte mugimenduen, eta abar ikasi beharko dute ikasleek beren adina eta taldearen aukeren arabera. Metodologiari buruz gauza bera esan genezake, aspaldi bilakatu ditu historiografiak ikerketa gai kantuak, sermoiak, produkzio erak, eta abar. Era berean barneratu beharko ditu irakaskuntzak, berriro ere Historia liburuetan dagoen kanon absolutu moduan irakatsi nahi ez badugu behintzat.

Euskal Herriko Historia bere ingurunean.

Zalantzarik gabe Euskal Herria esparru geografiko edo geopolitiko zehatz batean kokatua dago eta mundu mailako joerek, edo gutxienez europearrak, baita Espainia eta Frantziako joerek eragiten diote. Nahitaezkoa dirudi zehaztea zer-nolako harremana edukiko duen Euskal Herriko Historiak aipatutako esparruekin.

Manex Gohientzek *Euskal Curriculum: Kultur Ibilbidea* lanarentzat proposatutako curriculum ereduaren ikuspegi europearra proposatzen zuen Euskal Herriko Historia irakasteko ikuspegi onena zelakoan. Zalantzarik gabe egokia izan daiteke zentzu orokor batean hartuta eta dituen onurak ukaezinak dira. Hala ere, marku orokor egoki bat eskaini dezakeen arren, aro historiko zehatzei begira egokiagoa izan daiteke beste marko espazial batzuk hartzea. Hots, nolabaiteko eredu “misto” bat hautatzea.

Euskal Herriko Historiaurreari buruz ari garelarik, ikuspegi europearra eskasa izan daiteke eta mundu mailakoa egokiagoa izan daiteke. Baina, aldiz, Erdi Aroaren azterketa burutzerakoan, ikuspegi europearra edukitzea zentzudunagoa dirudi. Historia Garaikideari buruz ari bagara mundu mailako ikuspegia positiboa izan daiteke, baina ezin ahaztu ere, herri honek batez ere menpean daukaten bi estatuekin edukitako harremanari arreta berezia eskaini beharko zaio, esparru geografikoa hurbil fokatzeko.

⁷ G. Ezkurdia, *Curriculum eta ingurunea Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2004, 52. orr.

askotan. Bestela, deskolonizazio borrokei buruz hitzegiterakoan hirugarren munduari lotuta azaldu beharko ditugu, adibidez.

Historialarien erronkak Euskal Herriko Historiaren irakaskuntzarako

Euskal Herrian historiografiak hutsune nabarmenak dauzkala esatea ez dirudi baieztapen arriskutsua denik. Azken hamarkadetan urrats haundiak eman dira, gora behera haundiekin, baina botila erdi hutsa edo erdi betea egon ala ez, zalantzarik gabe arazoak egon badaude eta arazo horiek hezkuntzari eragiten diote era zuzenean. Hutsune horiek mahaigaineratu beharko genituzke eta apurka-apurka konpontzen joan. Sarritan adabakiak erabili beharko ditugu arazoei aurre egiteko, praktikan orain arte egin dugun gauza bera, baina edozein aurrerakuntza egungo hutsuneak estaltzen joateko era bat izango da. Hala bada, proposamena argia da: dauden arazoak zerrendatu kontziente izan gaitzean eta gure aukeren arabera, apurka-apurka konpontzen joateko. Ziur dauden guztiak ez direla egongo, baina daudenak badirela ziurra da ere.

Euskal Herrian Historia jorratzen duten talde ugari egon arren (Eusko Ikaskuntza, Aranzadi, UEUko Historia Saila, EHUko Historia Saila, Geronimo de Uztariz Institutua eta abar), dispertsio nabaria dago. Hain herri txikia izateko badaukagu Historia lantzen duten eragile ugari, baina aberastasun hori sarritan ez ditu behar dituen fruituak ematen dagoen komunikazio faltagatik. Gizartean dagoen zaletasuna nabaria da ere, horren frogagarri azken urteetan Unibertsitateetatik at Nafarroaren inguruan sortu den historiografia oparoa, edo azken urteetan burutzen ari diren tokian-tokiko ikerketa ugariak. Hala ere, hezkuntzarako hain beharrezkoa litzatekeen batasun minimoa ez da lortzen ari, segurasko aipautako dispertsio eta atomizazioagatik.

Aipatutako egoerak ondorio ugari dauzka. Hoiere artean nabarmenetako bat lengoai amankomun baten falta da. Egitasmo bat edo beste egon dira (UZEIren hiztegia kasu), baina gehienak txikiak edo zaharkituak geratu dira eta egun esparru honetan egiten dena egunerokotasunak bultzatua da. Hau da, kontzeptu berrien aurrean aurkitzen den historiagile edo irakasleak nola edo hala konpontzen ditu arazoak: filologian adituak dauzkan lagunak inguruan badauzka haiengana joz edo bestela inprobisatuz⁸.

Azkenik, nola edo hala aurrekoaren ondorio ere izan daitekeen beste hutsune bat aipatu behar dugu. J. Kintanak seinatzen duen euskal testu historikoen bilduma bat falta zaigu (Kintanak berak bere lanean aipatzen dituen EHUren edo UNEDen lanak egon arren), Historia irakasteko hain garrantzitsua den tresna.

Arestian esan bezala, ez daude denak, baina daudenak badira.

⁸ Honen inguruan ikus Iban Zalduak UEUko Historia Sailak Donostian antolatutako Historialari Euskaldunen I. Topaketetean aurkeztutako ponentzia.